



2014-2020 epealdian baimendu diren enpresen 554 kontzentrazioen ia %10ak eragina izan du Euskadin

Lehiaren Euskal Agintaritzaren iritziz, Autonomia Erkidegoetako agintaritzek partaidetza handiagoa izan beharko lukete kontzentrazio-operazioetan

Legediak Autonomia Erkidegoetako agintaritzen kontsultarako esku-hartzea bigarren fasean baimentzen diren kontzentrazioetan baino ez du aurreikusten

BILBON, 2020ko abuztuaren 10ean / Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) iritziz egokia da lehiaren agintaritzaren autonomikoak Euskadin eragin garrantzitsua duten kontzentrazio-operazio guztietan, prozeduraren edozein unetan, parte hartzea.

Enpresen kontzentrazioak kontrolatzeari dagokionez, egungo legeriak, Europakoak zein Estatukoak, zenbait atalase gaitzen direnean operazioa alde aurretik jakinaraztea eta onartzea eskatzen du. Era berean, Lehiaren Defentsarako Legeak operazioaren eraginpeko agintari autonomikoen kontsultarako esku-hartzea jasotzen du, baina lehen fasean baimentzen ez diren eta prozeduraren bigarren fasean aztertu behar diren operazioetan bakarrik.

2014-2020 epealdian, CNMCK 554 kontzentrazio-operazio baimendu ditu guztira. Baimendutako operazioetatik 54tan euskal enpresek hartu dute parte, hau da, eragiketa guztien % 9,75ean. Guztiak lehen fasean onartu dira, horietako bi konpromisoekin.

LEA/AVCren iritziz, kontzentrazio-operazio batek Autonomia Erkidego jakin batean duen eraginak ez du zerikusirik ebazten den prozedura fasearekin, eta, beraz, dagokion agintaritzaren autonomikoari jakinarazi beharko litzaioke, prozeduraren bi faseetako edozeinetan txostena egin ahal izan dezan.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzaren, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomoa du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketaren ekonomikoari dagokienez.